René Lafon hil da

(SEGIDA)

Hiru sail nagusi erabili ditu

Oihenartez, Etxeparez eta beste idazle zaharrez utzi dituen ikertzapenez gain; euskalkiez idatzi dituen lan monografikoez gain; gai lehorrez mamitu dituen azterketez gain, hiru sail nagusitan banatuko nuke nik Lafonen jakintz-uzta :

1) **Euskara eta Kaukasoko hizkuntzei buruzko haren lanak.** Irakurgarriak eta oso jakinduria handiaz oratuak, Lafonen lan horiek ez dira, ene ustez, aski ezagutzen gure artean. Halare, « sustrai bila » ari garelarik, hein batez bederen, Kaukasora jo behar genuke geure buruaren bila : « Qui veut comprendre les caractères essentiels de la langue basque doit porter son attention sur ce qui lui vient du fond de son passé, sur les traits archaïques, généraux ou de détail, qui par dessus des millénaires de séparation l'unissent encore à ses parents du Caucase. » Nik dakidanez behintzat Xabier Kintanak ez beste inork entzun bide du harako dei hau.

2) **Aspaldiko mendeetako euskararen zabalerari buruzko lanak.** Azkeneko mendeei dagokienez, A. Irigarai izan baldin bada aztertzailerik saiatuena, aspaldikoei buruz Lafon arduratu bide da gehienik. Hots, jakintza-gizon hutsa izan den Lafonen iritziok guztiz harrigarriak dira. « Vasco-iberismo »tik urrun izan arren, eta euskara eta iberoa bi hizkuntza desberdin direla pentsatuagatik ere, harritu egiten gaitu Lafonek behin eta berriz euskararen galtzearen mailaz eta neurriaz mintzo denean. Lafonen ustez, esate baterako, « dudarik gabe » akitanoa Garona-raino Erdi-Arora arte hitzegina, euskara zaarra baizik ez zen : « il ne fait aucun doute que l'aquitain et le vascon, peu différents l'un de l'autre, sont une forme ancienne de la langue basque. »

Eta erromatarren garaira igaroz gero, areago doakigu : « Une forme ancienne du basque a été en usage dans la région de Perpignan et de Narbonne » (Iparaldeko Kataluñan, eta gorago ere bai !) Eta beste batez : « On peut affirmer qu'il y a deux mille ans on parlait basque de l'Atlantique à la Méditerranée, dans les Pyrénées et dans les plaines qui s'étendent à leur pied et même sans doute, au moins par endroits, non loin de la vallée du Rhône. » Horren lekuko bat ematekotan, Kataluñan berriki aurkitutako harri-izkribua dakar : « Iunius Iaurbeles » (= « composé qui signifie en basque "seigneur noir" », Jaurbeltz alegia).

3) **Denborari buruz eta ekintzen atzerbideari buruz Lafonek utzi dituen saiakera guztiz apartak.** Euskal azterkera berezi eta sakonaz inor ez da mintzatu, nik dakidala bederen, Lafonek baino zorrozkiago. Hizkuntza berriz errotu eta sustraitu nahi dugun kinka zail honetan, behar beharrezkoa dugu Lafonen « Système » delakoa ongi ezagutzea. Liburu pare horrek argitasun harrigarria dakar bere orrialdeetan; eta euskal nortasunaren berezia (baita horren galeraren eta lardazketaren urratsak ere) zehatzmehatz funtsaturik gelditu da betirako.

Ene artikulu hau inoren sustatzaile izango bada, alde honetatik izan bedi : azter zazu, irakurle, behar bezain xeheki eta astiro, Lafonen « Système » sakon paregabea. Hau ongi ulertu arte ez dezala inork zozokeriarik bota euskal nortasunaren kontra. Isil bitez, otoi, etsaiaren morroin ezikasiak ! « Esencialismo »-rik ez badago ere, euskal azterkera berezi bat badagoela (eta areago bazegoela) argi eta garbi frogatu baitu Lafonek. Irakurri egin behar, ordea; eta irakurtzea eta irakurtzea eta ikastea nekezago gertatzen modako zozokeriak kakatoek bezala birresatea baino.

Besteak beste, gauza jakingarriak idatzi ditu jakintsu handiak « H madarikatuari » buruz... Hain zuzen ere, « H » horren palatalizazioan aurkitu uste baitzuen euskaldunon kaukaso-tasunaren aztarna bat; eta « H » madarikatuaren garrantziaz ongi jabeturik, hau idazten baitzuen : « Le H du basque a été insufisamment étudié à tout point de vue... l'étude de l'ensemble de l'aspiration en basque s'impose. » Hain zuzen ere, miretsia gelditu omen zen Lafon Kaukasoko mendietan hango artzainak hizketan adituta; ezen, azaltzen duenez, Xuberoko mendietan mintzatua zen artzainen fonetiko berezi berbera aurkiten baitzuen han, Kaukasoko tontorretan, bi erri anaien arteko lokarri izkutu gisa, eta hain zuzen ere... « H madarikatua » emateko moduan !

LARRESORO.

HITZAK

Sakona : Barnakorra.
Galera : Galtzea.
Lardazketa : Nahastea, funditzea.
Inor : Nihor.
Ulertu : Konprenitu.
Morroi : Mutil.
Birresatea : Berriz erraitea, errepikatzea.
Aztarna : Herresto, hatz.
Izkutu : Gorde.

Euskal-Herrian gaindi

USOAK XUBEROKO IRABAZPIDE

Badira kondu egiten badakitenak. Diote Xuberoko zindikatak irabazi ederrak egiten dituela, urtzotegi-lekuak alokatuz.

1961-etik 1973-rainoko arte hortan bildu omen ditu bortz ehun miliun (diru zahar).

Berrogoi eta zonbait miliun urtekal, ez da hain itsusi !

AUTO-BIDEA LAPURDIN

Oro auto-bidearen alde gira, bainan ez dugu nahi egin dadin gure herritarren kaltetan.

Jaun auzapez lapurtarrek arrazoin eman diote Andere Larchusi, heien biltzarrean pleinitu delarik Getharian gaindi auto-bidea pasarazi gogo duten maneraz. Herritar batzuek beren eskuz altxatu etxeak botatu behar omen dituzte, bideari leku egiteko ; herritar horiek urte guzia etxe horietan dagotzi bada. Aldiz arrotz batzu hogoi bat egun baizik ez dagozilarik, heieri ez diote lurizkin bat ere hunkitu nahi, aberatsak direlakotz. Hori ez da zuzen.

Biriatun zonbaiti etxeak berreratuko baitiozkate, galdatzen dute heien ordain eginen diren egoitzak herrian berean altxa ditezen, eta ez herriz kanpo. Biriatuarrak dira eta egon nahiak. Segur arrazoin dute.

Gauza horietan tokian tokiko jendeen intresak ez litazke sekulan ahantzi behar.

BERTSOLARIEN IXTORIOARI BURUZ

Martxoaren 21-ean Donostian bilkura bat izanen da mintzatzeo bertsolaritzaz.

Juan Maria Lekuonak kondatuko du lehenik nolakoa zen joan den mendean bertsolarien egoera. Gero, nola arras kanbiatu ziren gai edo sujetak, ba eta heien teknika ere bereziki musikari eta pondueri buruz. Azkenik aipatuko dira bertsularien arteko desafio zaharrak eta azken denbora hautako xapelketak.

Gero elgar-hizketa batean zonbait presunek beren iritziak emanen dituzte bai gaiez, bai oraiko moldez, bai bertsularieri utzi behar zaien bide zabalaz, bai koplari berrien sustatzeko modu hoberenez, eta abar.

Entzun dugunez, ipar-alde huntarik harat joan gogo dutenak badira, elgar hizketa hortan parte hartzera.

MERKATALGO IZENDEGIA

Asko jendek euskaraz izkiriatzen dutelarik ez dakite nola frantsesez deitu saldegi izenak itzul. Euskalzaindiak liburuxka bat ager-arazi du, hiztegi moduan. Hiru zerrendan emanak dira izen horiek : español, frantses, euskara. Hitz errexenak eta aipatuenak hautatu dituzte.

30.000 liburuxka horietarik atera ditu Iruineko « Banco de la Vasconia » delakoak urririk hedatzeko. Eskerrak diozkagu.

E. G.

Soljenitsine eta Erostrato

1-n paian hasia

Bapatean hau entzuten dugu, ordea : Soljenitsine oso aberatsa dela. Hots, Mendebaldean Soljenitsineren interesak zaintzen dituen Fritz Heeb delakoak, hauxe jakinerazi du berriki : « Mendebaldean argitara dituen nobelen aldetik, ez duela Soljenitsinek sosik sekula bildu. Koberatu duen diruketa bakarra hau da : Nobel-Sariaren parte bat, Soljenitsineri, bestalde, bost axola zaio dirua ; eta ezertxo ere ez jaso nahiago du. Hain zuzen ere, baliteke bere idazle-etekin horiek guztiak egunen batez gizatar elkarteren baten eskuetan jartzea ». Moskuko Idazleen Elkarteak aberastu ote du beraz 1969-az geroztik bota zuen idazle madarikatua ?

Soljenitsineren ausardia (Siberian urte luzetan barrena zigortua) « probokazio »tzat salatu dute batzuek ; eta stalinismoaren kritika, sozialismoaren kontrako herra gisa aurkeztu. Zergatik ordea ? Trotsky, Marcuse, Sartre eta Cohn Bendit ez dira leunago izan stalinismoaren kontra. Hortaz ?

Krixtauentzat bezala sozialixtentzat ere

Soljenitsine kristau suharra omen da. Honengatik ez besterengatik, ordea, inor afusilatu behar denik ez dut uste. Ez gaitezen eror beste muturreko Inkisiziora ! Nori bere Fedea eta bere errespetua. Zeren-eta, nork du Egia ?

Soljenitsinek hau idatzi du : « Guztiz da Kondaira arrazoinbideetatik at mamitzen den bilakabide bat » (« un procès éminemment irrationnel »). Eta hau ez zaio barkatzen. Baina Levi Straussek ia hitz berberak idatzi ditu. Eta Hegel filosofo bat da, besterik ez.

Soljenitsinek hau ere idatzi du : « Errusiako literaturaren ezagugarririk nabarmena hauxe da aspaldi danik. Ikusten dituen bezala esan behar ditu gauzak idazleak ». Eta hau ere ez zaio barkatu ; egia esan ala ez esan agintaritzak erabaki behar omen du-ta.

« Minute »k eta fazista guztiek letra handitan aipatzen dute gaur Soljetnitsine ; eta honek nardatu egiten gaitu. Txilez ez baitute horiek ezer esaten. Bainan Lukacs marxista ere guztiz mintzatu zen goraki Soljenitsineren alde. Aste hauetako giro berri hau, beraz, oso joera berezi batetan eta ez beste inun nagusi, nork erein du eta zertarako ? Nork nahi ditu bat sozialismoa eta stalinismoa ?

Batzuek fama haundia eta besteak ixilean

Soljenitsine, halere, sosik batere gabe baldin badago ere, aberririk gabe gelditu bada ere, horren maite duen bere Errusia gabe bizi beharko badu ere, halako kontsolabide edo aringarri bat bederen badu : Erostrato-rena. Eta hau ez omen da kontsolagarri apurra.

Jakina denez, bere burua hilezkor egin nahiz, Efeso-ko Artemis-en eliza sakratua erre zuen Erostratok Grezia zaharrean ; eta ekintza horretan, espero zuen bezalaxe, bizia galdu zuen. Hilezkortasuna lortu zuen, ordea : gaur ere Erostrato nor zen badakigu. Hots, hauxe izan zen haren erraketaren kakoa. Erostratok, gosta ala gostarik, gizonen oroimenean bederen nahi zuen bizi.

Soljenitsinek bere burua txalotuta ikusten du, bere irudia mundu guztiko kasetetan topatzen. Soljenitsinek, hitz batez, gaur bederen, badu Erostrato-ren kontsolabidea : hilezkor agertzen da, ospea biltzen du bazter askotan.

Inolaz ere, beraz, Soljenitsineren ohorea eta merezimendu gaitzak nik deusetan ttipitu nahi izan ez arren, Erostrato-ren kontsolagarririk gabe beren herritik kanporatuak diren gizajo apal ez-ezagunak gogorazi nahi nituzke.

Palestinarrak aurren-aurrenik, noski. Baina baita Prusiarrak, baita Tartarok, baita Tibetarrak ; baita lanik ezaz apalki eta isil-isilik beren sorterria utzi behar duten horiek. Hauek ohorerik gabe itzaltzen baitira atzerrian ; bortxaturik deserriratzen baitira. Eta nehork ez baitaki deusik ere beren trajeriaz.

Euskal-Herrian ere badugu holako

Baina are bertago ditugun deserritutako 55 horietaz zer esango ? Geure anaiak ditugun Soljenitsine horietaz zer ? Zer dago erdiragarriagorik dena eskaini, eta eman, duena, bere etxekoek berek zokoraturik, iraindurik eta ukaturik topatzea baino ? Zer dago bihotz-urragarriagorik, irakurle, dena utzi duten Soljenitsine ez-ezagun horiek dena utziagatik ere, gaur eta beti ahaztuak eta ez-ezagunak izango direla jakinik ere, inolako kontsolagarriren esperantzarik gabe, tenk aurkitzea baino ?

Soljenitsinek dena arriskatu du ; baina badakigu. Gure anaia horiek, ordea, aurtikiak izan dira, lur gorrian etzan dira, oker ala zuzen ; eta ez dugu jakin nahi. Geureak ditugun helburuen alde dena eskaini dutenak, ukatu egin ditugu. Eta guk geronek ukatu eta baztarrera bota ondoren, etxeko ez direnek baztertu dituzte. Zeren-eta askoz errazagoa baita beti urrungoaren alde agertzea, bertako samaritanoaren alde baino.

Horra hor egia latza. Eta Erostrato-ren kontsolagarririk ez dago haientzat ; eta ongi dakite. Etzanda dauden horiek, horretara, txikiagoak direlako, handiago zaizkit Soljenitsine bera baino.

Orain arte, ordea, hauxe baizik ez dute entzuten farisau super-perfektoengandik : utikan zorook ! Eta muzin itsusi batez bazkaltegira sartzen ikusi ditugu irribarrez, eta beren buruetan zindo.

TXILLARDEGI.

*

Hitzak. — Iritzia : idaia. Aburua : opinionea. Zeharo : errotik. Erabaki : delibero. Zalantza : duda. Prentsa : presse. Arazoa : zituazionea. Aurrean : aintzinean. Jaurtiera : aurtikitzea. Koberatu, jaso : altxatu. Ezertxo : deuserez. Idazle-etekina : izkirio-saria. Ausardia : ausartzia. Zigortua : gastigatua. Aurkeztu : erakutsi. Nabarmena : aipagarria. Apurra : gutia. Lortu : ardietsi. Hilezkor : ezin hilezko. Txalo : esku-zarta. Gizago : giza-gaizo. Bertago : hurbilago. Iraindurik : zikindurik. Ahaztuak : ahantziak. Erraza : errexa. Etzanda : etzan-ta. Utikan : fuera. Muzin : bekuntze. Iribarrez : irriz-irriz. Zindo : sano.